

# EUSKO KANP



## 1. BALIO PROPOSAMENA

Eusko kanp gara, Lizarran kokatuta dagoen udaleku bat, udaran umeentzako eta urtean zehar helduentzako formakuntzak eskeintzen dituen enpresa.

Gure udalekuen berezitasuna, euskara bultzatzea eta jendeak euskara barneratzea izango da. Euskarak azken denboraldian izan duen beherakadarengatik eta ikusita euskera maila jaisten ari dela, enpresa bat sortzea erabaki dugu, gure ondarea ez galtzeko. Azken aldian, gazteak gaztelaniaz jarduten dira, euskaraz aritu beharrean. Zer esanik ez gurasoetaz, horregatik, eta euskararen erabilera mundu akademikora murrizten ari dela kontuan hartuta, gure enpresak, maite dugun euskara bultzatzea izango du helburu.

Gainera, bizimodu osasuntsua ere bultzatzea dugu helburu, horretarako, sukaldaritzari eta lorazaintzari buruzko formakuntzak emango ditugu. Horretarako, sukalde bat izango dugu kozinatzeke eta baratza edukiko dugu lorazaintzari buruzko praktikak egiteko. Bestalde, uzta txarren bat izango bagenu edota guk landatzen ez ditugun barazkiak eta frutak eskuratu nahi baditugu, km 0-ren bidez lortuko ditugu. Hau da, hurbileko baserrietan eta denda txikietan erosiko ditugu.

Gure udalekuak psikologian aditua den pertsona bat izango du, modu honetan, umeek beharrak asetzeko edota galderak egiteko aukera izango dute eskura. Gainera, umeak elkar ulertzea bideratuko ditugu, liskarrak saihesteko eta beraien sentimenduak positiboak izateko momentuoro. Behar izanez gero, erresilientzia irakatsiko dien maisu aparta izango dute udalekuan.

Gure udalekuan hiru ordutegi izango ditugu, lehenik, etorriko diren bezeroak bi taldetan banatu ditugu, 7-17 urte bitarteko gazteak eta 18 urte baino gehiagoko pertsonak. Umeentzat, bi ordutegi sortu ditugu, A ordutegia txikieentzat da, 13-17 urte bitartekoentzat da eta B ordutegia 7-12 urte bitartekoentzat izango da. Bien arteko desberdintasuna, batek sukaldaritza eskaintzen duela eta besteak multikirolak eskaintzen dituela da. Azkenean, 7-12 urte bitarteko umeak oso txikiak iruditzen zaizkigu suarekin ibiltzeko, eta nahiago dugu beraiek kirolak egitea.

Gure ideia, udaran, gure zerbitzuak umeentzat izatea eta urtean zehar helduagoentzat izatea da, umeek asteko ordutegia izango dute eta aukeratzeko duten gauza bakarra zenbat aste etorri nahi duten da. Aldiz, helduentzat, urtean zehar eskainiko ditugu zerbitzuak eta hauek, egunean gutxienez bi ordu hartu behar dituzte aste guztirako. Ze bi ordu ondo datorkien esaten digute eta guk ordutegi bat izango dugu prestatua, eskaintzen ditugun ikasgai guztiak nahastuta, astean zehar gauza desberdinak egiteko.



Euskera bultzatzea helburu badugu ere, hiru hizkuntza landuko ditugu. Zazpi urtetik hamabi urtera bitarterakoen kasuan, bakarrik euskara landuko dute. Hamairu urtetik hamazazpira urte bitarteko kasuan, euskara eta ingelesa landuko dituzte, eta helduek, frantsesa eta ingelesaren artean aukeratzeko aukera dute. Ingelesa gaur egun gure mundu globalizatuan oso ondo dator jende desberdinarekin komunikatu ahal izateko. Euskara gure ondarea da eta ez galtzeko eta jende gehiagok hizkuntza honekiko erlazio positiboa izateko landuko dugu. Azkenik, gaztelania erabiliko genuke, beste hizkuntzetan ulertzen ez diren gauzak azaltzeko. Helduen kasuan, euskara eta atzerriko hizkuntza bat, bai edo bai landuko dituzte, baina frantsesaren eta ingelesaren artean hautatzeko aukera emango diegu, beste behar batzuk dituen jendea badagoelako eta horretaz ohartzen garelako.

Egunero, gure udalekuan eskaintzen ditugun jarduerak amaitzean, bazkaltzeko ordu bat eskaintzen dugu, ordaindutako prezioaren barruan sartzen dena. Bestalde bazkaltzeko ordua amaitzean, umeak zaintzeko bi ordu eskaintzen ditugu, baina hau ez da oinarrizko prezioaren barruan sartzen, plus bat ordaindu beharko da.

Udan, udaleku asko daude, beraz, konpetentzia handia izango dugu, baina guk besteengandik desberdintzen gaituen klaseak emango ditugu. Klase hauetan, tertulia asko egingo ditugu, beraien mintzamena hobetzeko eta gizartea hobetzeko ideia batzuk bultzatuz. Adibidez, inklusioa, LGTBQIA +, berdintasuna... Gure ideia, gai hauei buruz hitz egiten, gure udalekuan, denek parte hartzea, lagunak egiten ikastea eta beraien artean erlazionatzen laguntzea da, atmosfera euskaldun eta inklusibo bat sortuz. Hau umeekin egin nahi dugu, txikitatik hezkuntza on bat izateko, azkenean gurasoek, helduagoak direnez beraien ideiak dituzte. Gainera, Garapen Iraunkorrerako 5 helburu beteko ditugu eta honek ere besteengandik desberdinduko gaitu .

17 Garapen iraunkorreko helburuen xedea da, mundu osoan eragina duten ingurumen, gizarte eta ekonomia arazo larriei aurre egitea. Honenbestez, 2030erako mundu jasangarri bat lortuko genuke. 17 helburu horietatik, guk bost betetzen ditugu. Honako hauek dira:

2: **Goserik ez:** Gure jangelan, guk landatutako barazkiak eta frutak emango dizkiegu jateko. Behar dituzten eguneroko nutrienteak jasoko dituztela segurtatuko gara. Gainera nekazaritza jardunbide iraunkorrak sustatatuko ditugu.



3: **Osasuna eta ongizatea:** Lorezaintzako eta sukaldaritzako klaseetan, janari osasuntsuari buruz, dieta on bat izaten eta beraien burua zaintzen erakutsiko dugu.





7: **Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea:** Gure kanpamenduan eguzki panelak jarriko ditugu, lur handiak izango ditugunez erabiliko dugun energia guztia ez kutsatzailea izango da.



10: **Desberdintasuna murriztea:** Hizkuntzetako klaseetan, tertuliak egingo ditugu. Tertulia hauetan hitz egingo ditugun gaiak: berdintasuna, LGTBQIA +.. izango dira. Honekin gazteek gure gizarteko arazoei buruzko berrien iritzia sortuko dute eta besteei errespetatzen ikasiko dute.



13: **Klimaren aldeko ekintza:** Lorezaintzako klaseetan, kutsadurak naturan eragiten dituen eragozpenenei buruz ohartarazten lagunduko diegu eta askoz gutxiago kutsatzen ikasiko dute.

